

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Onartu

Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu hemen (<https://urolakosta.hitza.eus/cookieak/>)

Bigarren eskuko bateria ederra

(<https://www8.smartadserver.com/click?imgid=23204430&insid=8451562&pgid=1024045&ckid=5784961765964326159&uii=246674291835993775&acd=1559634970717&pubid=15&tmstp=3358385018&tgt=%24dt%3d1t%3b%24dt%3d1t%3b%24hc&systrgt=%2F&go=http%3a%2f%2fwww.iragarkilaburrak.eus>)

Lehen sorospeneko ikastaroak antolatu dituzte Kostako herrietan

(<https://www8.smartadserver.com/click?imgid=23204430&insid=8451562&pgid=1024045&ckid=5784961765964326159&uii=246674291835993775&acd=1559634970717&pubid=15&tmstp=3358385018&tgt=%24dt%3d1t%3b%24dt%3d1t%3b%24hc&systrgt=%2F&go=http%3a%2f%2fwww.iragarkilaburrak.eus>)

Aia (<https://urolakosta.hitza.eus/herriak/aia/>), Getaria (<https://urolakosta.hitza.eus/herriak/getaria/>), Orio (<https://urolakosta.hitza.eus/herriak/orio/>), Zarautz (<https://urolakosta.hitza.eus/herriak/zarautz/>), Zumaia (<https://urolakosta.hitza.eus/herriak/zumaia/>)

Gizartea (<https://urolakosta.hitza.eus/gaiak/gizartea/>)

"Edonor izan daiteke gai bizitza bat salbatzeko". Zumaian pasa den asteburuan egin dute ikastaroa, eta Getarian, Orion, Aian eta Zarautzen datozen asteotan dira

2018 (<https://urolakosta.hitza.eus/2018/>)05 (<https://urolakosta.hitza.eus/2018/05/>)09 (<https://urolakosta.hitza.eus/2018/05/09/>)

Juan Luis Romatet (<https://urolakosta.hitza.eus/sinadurak/juan-luis-romatet/>)



(http://urolakosta.hitza.eus/site/files/2018/05/LEHEN_SOROSPENEO_IKASTARO.jpg)

Larrialdi zerbitzueta kideak argibideak ematen, pasa den larunbatean, Zumaia Gurrutxaga plazan. (Romatet)

Makina bat pelikulan eta telesailetan ikusten dira sendagileak, desfibriladoreen bidez, hiltzorian dauden pertsonen deskarga elektrikoak ematen, eta, hamargarrenean bada ere, pertsona horiek heriotzatik bizitzara ekartzen. Baina bizitza errealean gai izango litzateke edonor desfibriladore bat erabiltzeko? Baten aurrean besteren bati bihotza geratuko balitz, zer egin ahaliko luke? Halako kasuren bat gertatuz gero, zer egin behar den erakusteko lehen sorospeneko ikastaro sorta antolatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Urola Kostako Udal Elkarteak. Aurreneko ikastaroa Zumaian egin zuten pasa den larunbatean, eta hurrengoak Getarian (larunbat honetan), Aian eta Orion (maiatzaren 19an), eta Zarautzen (maiatzaren 26an) egingo dituzte.

Maniki batzuen bidez, larrialdi kasu batean nola erantzun beharko litzatekeen erakutsi zuten zerbitzu hauetan aritzen diren hainbat kide. Bai bihotza geratzen denean, baita ere asnasbideen buxadura bat dagoenean. Ikastaroak antolatzen eta ematen parte hartuko duten erakundeak dira: Zarauzko Babes Zibila, Gurutze Gorria, DYA, SOS Deiak eta Osakidetza.

Lehenbailehen erantzuna


"Bat-bateko heriotza kasu batean aurreneko minututik egin behar da zerbait. Ikastaro hauen helburua hori herritarrei azaltzea da", adierazi du Dani Alonso Osakidetza kideak. "Denok dakigu, aurren-aurrena 112 telefono zenbakira deitu behar dela. Anbulantzia etorri arte, baina, zer egingo dugu? Agian, gure herriko anbulantzia une horretan okupatuta dago, eta beste herri batekoa etorri bitarteko minutu horiek funtsezkoak dira. Adierazi behar duguna da halako kasu batean zerbait egin behar dela, hobe dela zerbait egitea ezer ez egitea baino", gehitu du Alonsok.

Osakidetza kidearen esanetan, bat-bateko heriotza bat izan eta 8-10 minutu igaro eta gero bihotzak oraindik erreakzionatzen die deskarga elektrikoak. "Minutu horiek pasatu eta ez bada ezer egin, zaila da egoerari buelta ematea". Halako kasu baten lekuko izanez gero, zer pauso eman behar diren erakutsiko dute herriz herri antolatutako ikastaroetan. "Lehenbizi estimuluak erantzuten dien ikusi behar dugu. Sorbaldatik hartu, astindu eta hitz egin behar diogu. Geldirik badago, ez badu erantzuten, seinale konortea galdu duelako da. Hurrengo pausoa izango da ikustea ea arnasa hartzen duen, eta horretarako arnasbideak zabalduko dizkiogu. Ez badu arnasa hartzen, 112 telefono zenbakira deituko dugu eta bular-konpresioak ematen hasiko gara. Lehen unetik hasi behar da bular-konpresioak egiten, oxigenoa burura heltzeko. Une horretan gurekin beste lagunen bat badago, desfibriladore baten bila bidaliko dugu hura".

Herrietan gero eta desfibriladore gehiago daudela adierazi du Alonsok. Desfibriladoreak zein tokian dauden jakiteko, telefono mugikorrerako aplikazioa ere sortuta du Osakidetza. "Telefono mugikorrerako aplikazio dendetan PCEH (Ospitale Kanpoko Bihotz Geldialdia, gaztelarazko siglatan) sartzea nahikoa da. Aplikazioak formazio erraza eskaintzen du fitxa eta bideo baten bidez, metronomo antzerakoa du bular-konpresioen erritmoa jarraitzeko. Gainera, inguruan, 500 metroren barruan, desfibriladoreak non dauden erakusten digu. Zumaia plaza gaudela begiratu, eta hemendik gertuena dauden desfibriladoreak daude Eroskin, BMn, Balenciagan eta GKnn. Agian, gehiago egongo dira, baina ez dira erregistratuta egongo. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako desfibriladoreen dekretuak dio makinak erregistratu egin behar direla. Beraz, dutenak animatzen ditugu pauso hori ematera, bestela gure fitxategian ez dira eta agertzen".

Dekretu horrek berak, "estatuko aurreratuena denak", edozeini uzten dio desfibriladoreak erabiltzen. "Makina erabilerraza da. Piztu eta instrukzioak jarraitu behar dira. Edonor izan daiteke gai bizitza bat salbatzeko".

Azken 7 egunetako irakurrienak



Tokiko informazioa profesionaltasunez eta euskaratik, modu librean kontatzen du gure eremuak. Horretarako zure ekarpena beharrezkoa da, eta ongi maitatzeko modurik zintzoena da HITZA kide egitea.

egin zaitez HITZA kide (<https://urolakosta.hitza.eus/hitzakide/izan/>)